




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Atenearen olibondoa

Geografia eta historia - Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila



Irakaslearentzako ikas-egoeraren gida

Inplikaturiko ikasgaiak

Geografia eta Historia, Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa

Saio-kopurua

12

Ikas-egoeraren markoa

A. Testuingurua

Olibondoa, antzinako Greziaren mundua ulertzeko abiapuntu gisa. Olibondoak –mito baten sinbolo gisa eta ekonomiaren eta eguneroko bizitzaren funtsezko elementu gisa–, gaur egun bizirik dirauen garai batean sartuko gaitu. Grezia klasikoari zor diogu gure hiztegiaren zati handi bat (zientifikoa, zenbakiak eta teoria matematikoak barne), bai eta diziplina askotako kontzeptuak berak ere: demokraziaren lehen kontzeptutik edo arte plastikoen ikuskera harmonikotik hasi, antzerkitik eta arkitekturatik pasa, eta koronabirusaren aldaerak alfabeto grekoaren arabera izendatzeraino, esaterako.

B. Abiapuntua

Heladea eta haren mitorik garrantzitsuenetako bat.

C. Azken ekoizpena

Azalpen-erakusketa bat, olibondoaren eta antzinaroko Greziaren arteko lotura erakutsiko duena. Institutuko korridoreetan jarriko da ikusgai.

Proposamenaren justifikazioa

A. Proposamenaren xedea

- Antzinako Greziaren ikuspegi orokorra, alderdi guztiak kontuan hartuko dituen, lortzea, eta, mito femenino batetik abiatuta, olibondoak Antzinaroan gizartearen, ekonomiaren, artearen, politikaren eta abarren arteko lotura-elementu gisa zuen garrantzia ulertzea.
- Lagunduta, informazioa bilatzea eta komunikazio-produktu bat egitea.

B. Argudiaketa kurrikularra

(Ikus taula).



C. Helburu didaktikoak

- Modu gidatuan, antzinateko Greziari buruzko informazioa bilatzea eta estrategia egokiak erabiliz hautatzea.
- Antzinaroko Greziari buruzko eduki digitalak lantzea eta produktuak sortzeko erabiltzea.
- Antzinaroko Greziako gobernu-moduak identifikatzea eta haiekin lotutako produktuak sortzea.
- Antzinaroko Greziako gizarte-antolaketa identifikatzea.
- Antzinaroko Grezian emakumeak zuen paperaz jabetzea.
- Greziak Antzinaroan garatutako sistema ekonomikoak ezagutzea.
- Ekonomiaren hazkunde-erritmo eta -ziklo desberdinak ulertzea.
- Egoera ekonomikoak gizartearen gainerako elementuetan (politika, gizarte-antolaketa...) duen eragina ulertzea.
- Antzinaroko Greziako ezaugarri kulturalak eta adierazpen artistikoak ezagutzea.
- Grezia klasikoak gaur egungo munduari egindako ekarpenak identifikatzea.

Argudiaketa kurrikularra

Funtsezko Konpetentziak	Deskriptoreak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
GEOGRAFIA ETA HISTORIA				
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1, 2, 3 1, 2 4 1, 2, 3 4, 5 1, 3 3 3	1. Gaur egun garrantzitsuak diren arazo geografiko, historiko eta sozialen inguruan ikertzea, argudiatzea eta hainbat formatuetan produktu propioak egitea, tokikotik globalera, informazioa bilatuz, aukeratuz, tratatuz eta antolatuz, eta iturri historikoak eta geografikoak erabiliz, ezagutzak eskuratzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko.	1.1. Egungo eta iraganeko prozesu eta gertaera historiko, geografiko eta sozial esanguratsuei buruzko informazioa modu gidatuan bilatzea, hautatzea, antolatzea eta komunikatzea, hainbat euskarritan aurkeztuz eta zereginaren helburuak kontuan hartuz.	A2- Kokapen espaziala. Espazio geografikoaren irakurketa eta irudikapena: mapak, orientazioa eta eskalak. A4- Gailuen, informatika-aplikazioen eta plataforma digitalen erabilera, Geografia eta Historia aztertzeke. Komunikazio-sareen erabilera segurua. A5- Informazioaren bilaketa esparru digital eta analogikoetan, informazio horren irakurketa eta balorazio kritikoa eta hainbat formatutan produktu anitzen sorrera, ezagutza lantzeko bide gisa..
HKK KE HK KAKK	5 3 1, 2 1	3. Sistema demokratikoak eta horien oinarrizko legeak eraikitzea —konstituzioak— iritsi arte Historian zehar izan diren antolaketa politiko motak azaltzea, komunitatean bizitzeak berezkoak ditugun betebeharrak eta eskubideak onartuz, herritarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatzeko.	3.1 Historiurretik Aro Modernora arte bizikidetzeta eta elkarbizitza arautu dituzten mekanismoak identifikatzea, sortu diren antolaketa politikoko eredu nagusiak nabarmenduz, gaiaren ulermena islatuko duten produktuen bidez.	B8- Gizarte-egituren eboluzioa Mesopotamian, Egipton, Grezian eta Erroman. Antzinaroko gizarteetako kide behartsuenak. Emakumeen eguneroko bizitza eta rol ezagunak. B9- Antolaketa politiko mota desberdinak Antzinako Munduan: oligarkia, erresuma, inperioa, errepublika eta demokrazia, Mesopotamiatik Erroma arte.

<p>HKK STEM KD KPSII HK</p>	<p>1, 2, 3, 5 5 1, 2, 3 4, 5 1, 2, 3, 4</p>	<p>6. Historian zehar izandako sistema ekonomikoak eta hauek izan dituzten garapen-prozesuak azaltzea, aurrerapenaren ideiarene esanahia baloratuz, gizartean, ingurumenean eta lurraldean dituzten ondorioekin batera, egungo mundu ekonomikoa eta bere nagusitasun-, mendetasun- eta mendekotasun-harremanak ulertzeko gai izateko, baita gizarte-eskubideen garrantzia eta oinarritzko baliabideen eskuratze unibertsalaren munta ulertzeko.</p>	<p>6.1. Historiaurretik Aro Modernora arte ezagutzen diren sistema ekonomikoak azaltzea, gizartean, lurraldean eta ingurumenean dituzten ondorio askotarikoekin batera, hazkunde-erritmoak eta -zikloak daudela ulertzeko.</p>	<p>A2- Kokapen espaziala. Espazio geografikoaren irakurketa eta irudikapena: mapak, orientazioa eta eskalak. B7- Merkataritzaren garapena Antzinaroan. Merkataritza-bide nagusiak. Konkistaren eta kolonizazioaren arteko aldeak. B10- Sistema ekonomikoen eboluzioa: lurraldearen giza eraldaketan eta baliabideen eta lanaren banaketa desberdinetan izan duten eragina, Historiaurretik Aro Modernora arte. Ziklo demografikoak.</p>
<p>KE KPSII HK KAKK</p>	<p>3 1 1, 2, 3 1, 2</p>	<p>7. Gizatalde identitateen jatorri eta kausa historikoak, eta horiek munduaren konfigurazio eta herentzia sozial, politiko eta kulturalerako elementu gisa duten eginkizuna ezagutzea, euren eboluzioa kritikoki aztertuz, gaur egun duten esanahia ulertzeko, gizatalde baten kide izatearen sentimenduak errespetatzeko eta sortu eta sortzen duten ondare-aberastasuna eta legatu historiko eta kulturala baloratzeko.</p>	<p>7.1. Antzinaroan, Erdi Aroan eta Aro Modernoan garatu ziren kulturen eta zibilizazioen elementuak gaur egun arte eraiki diren talde-identitateekin lotzea, horiek zeintzuk diren identifikatuz eta kultura unibertsalari egiten dizkieten ekarpenei buruz hausnartzeko. 7.2. Mundu klasikoak, Erdi Aroak eta Aro Modernoan Europari egindako ekarpenak identifikatzea eta azaltzea, ondare historikoa, instituzionala, artistikoa eta kulturala Europako herritarren ondare komun gisa aintzat hartuz eta balioetsiz, eta gizatalde baten kide izatearen sentimendu oro (erlijiosoa, nazionala...) errespetatuz.</p>	<p>B14- Arte- eta kultura-adierazpenen esanahia eta funtzioa zibilizazio desberdinetan: Arte Paleolitikotik Arte Erromatarra arte. Ondare material eta immaterialarenganako errespetua eta horien babesa eta kontserbazioa. B14- Arte- eta kultura-adierazpenen esanahia eta funtzioa zibilizazio desberdinetan: Arte Paleolitikotik Arte Erromatarra arte. Ondare material eta immaterialarenganako errespetua eta horien babesa eta kontserbazioa. C6- Natura-, historia-, arte- eta kultura-ondarearen zaintza eta babesa. Euskal Herrian eta Espainian natura- eta kultura-ondarea babesteko legeak.</p>
<p>HKK HK EK KAKK</p>	<p>2 1, 2, 3, 4 1 1</p>	<p>9. Zibilizazioek Historian zehar egin dituzten ekarpen kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta pentsamenduzkoak ezagutzea eta balioestea, Euskal Herriari eta Espainiari arreta berezia eskainiz, mendebaldeko kulturaren erroak eta eraldaketak ulertzeko eta egungo edozein kulturaren adierazpenak errespetatzeko.</p>	<p>9.1. Antzinaroko, Erdi Aroko eta Aro Modernoko zibilizazioen ekarpen kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta pentsamenduzkoak ezagutzea eta azaltzea, egungo kulturen erroak osatzen dituztenak adieraziz eta elkartasunaren, justiziaren, askatasunaren eta jasangarritasunaren gure kontzeptuarekin lotuz.</p>	<p>B15- Mendebaldeko kulturaren erro klasikoak. Pentsamenduaren bidez kultura-identitateak eraikitzeak hastapen ezagunak, Paleolitikotik Erromanizazioa arte.</p>

BALIO ZIBIKO ETA ETIKOETAKO HEZIKETA				
HKK KD HK KAKK	5	2. Ingurune analogiko eta digitaletan jardutea eta elkarreragitea, errespetuzko elkarrizketa baterako beharrezkoak diren arau eta balioekin bat etorritik, bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta guztion onerako modu aktiboan konprometituak sustatzeko duten garrantziaren aitortzen oinarritutik abiatuz, arau eta balio zibiko eta etikoei buruz hausnartzeko, bizitza komunitarioa arautzeko eta hainbat testuingurutan modu eraginkorrean eta justifikatuz aplikatzeko.	2.1 Ingurune analogiko eta digitaletan herritartasun aktibo eta demokratikoa sustatzea, sormenezko prozedurak eta printzipio zibiko, etiko eta demokratiko esplizituak aplikatuz erabaki kolektiboak hartzean, ekintza koordinatuak planifikatzea eta arazoak konpontzea eskatzen duten talde-jardueretan errespetuz, elkarrizketa bidez eta modu eraikitzailean parte hartuta.	- Konpromiso zibikoa eta herritarren partaidetza. Testuinguru hurbilean antolatze eta erabakiak hartzeko moduak. - Emakumeen eta gizonen berdintasuna. Jokabide sexistak eta ez-sexistak. Emakumeak gizartean diskriminatzen dituzten egoerak. - Genero-rolak eta horien agerpena gizartearen eta kulturaren esparru guztietan.
	3, 5 1, 2, 3, 4 1		2.3 Genero-berdintasun eraginkorraren aldeko borroka eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta esplotazioaren arazoak jabetzea, desparekotasuna, indarkeria eta genero-arraioengatiko diskriminazioa eta sexu-orientazioa aztertuz, eta LGTBIQ+ eskubideak ezagutzeko eta horiek errespetatzeko beharra aitortuz.	



Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio-adierazleak (irakasleentzat)

A. Hasierako fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
1. Mapa.	- (1.1) Antzinaroko <i>Heladeari</i> buruzko informazioa, Mediterraneoaren testuinguruan, modu gidatuan komunikatzen du.	- Koebaluaziorak o errubrika.
2. Denbora-lerro bat egitea.	- (1.1) Antzinaroko Greziari buruzko informazioa modu gidatuan bilatzen, hautatzen, antolatzen eta komunikatzen du, euskarri digitalean aurkeztuz eta zereginaren helburuak kontuan hartuz.	- Koebaluaziorak o errubrika.
3. Testu bat irakurtzea eta horri dagozkion galderei erantzutea. Politeismora hurbiltzea.	- (3.1) Antzinaroko Grezian bizikidetzeta eta elkarbizitza arautzen zituzten mekanismoak identifikatzen ditu, gaiaren ulermena islatzen duten produktuen bidez. - (7.1) Antzinaroko Grezian garatu ziren elementu kulturalak gure talde-identitateekin lotzen ditu, horiek zein diren identifikatzen ditu eta kultura unibertsalari egin dizkioten ekarpenei buruz hausnartzen du. - (7.2) Grezia klasikoak Europari egindako ekarpenak identifikatzen eta azaltzen ditu, eta ondare kulturala Europako herritarren ondare komun gisa aintzat hartzen eta balioesten du. - (BZEH 2.3) Genero-berdintasun eraginkorraren aldeko borrokaz eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta esplotazioaren arazoaz jabetzen da, desparekotasuna, indarkeria eta genero-arrazoiengatiko diskriminazioa eta sexu-orientazioa aztertuz, eta LGTBIQ+ eskubideak ezagutuz eta horiek errespetatzeko beharra aitortuz.	



B. Garapen-fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
4. Gizarte-egiturak.	- (3.1) Antzinaroko Grezian bizikidetza eta elkarbizitza arautzen zituzten mekanismoak identifikatzen ditu, gaiaren ulermena islatzen duten produktuen bidez.	- 2. eta 3. jarduerekin batera ebaluatuko da, antzinaroko Grezian horren guztiaren artean dagoen zuzeneko lotura dela eta.
5. Antolaketa politikoa.	- (3.1) Antzinaroko Grezian bizikidetza eta elkarbizitza arautzen zituzten mekanismoak identifikatzen ditu, sortu ziren antolaketa politikoko eredu nagusiak nabarmenduz, gaiaren ulermena islatzen duten produktuen bidez. - (7.1.) Antzinaroko Grezian garatu ziren elementu politikoak gure talde-identitateekin lotzen ditu, horiek zein diren identifikatzen ditu eta kultura unibertsalari egin dizkioten ekarpenei buruz hausnartzen du. - (7.2.) Grezia klasikoak Europari egindako ekarpenak identifikatzen eta azaltzen ditu, ondare historikoa, instituzionala, Europako herritarren ondare komun gisa aintzat hartuz eta balioetsiz, eta gizatalde baten kide izatearen sentimendu oro -erlijiosoa, nazionala...- errespetatzen ditu.	- 1. eta 3. jarduerekin batera ebaluatuko da.
6. Sistema ekonomikoak.	- (6.1.) Antzinaroko Grezian ezagutzen ziren sistema ekonomikoak azaltzen ditu, gizartean, lurraldean eta ingurumenean zituzten ondorio askotarikoekin batera, eta hazkunde-erritmoak eta -zikloak daudela ulertzen du.	- Heteroebaluazio rako errubrika, 1., 2. eta 3. jarduerak ebaluatzeko.
7. Adierazpen artistikoak eta kulturalak.	- (7.1) Antzinaroko Grezian garatu zen kulturaren elementuak gaur egun arte eraiki diren talde-identitateekin lotzen ditu, horiek	- 5. jarduerarekin batera



	<p>zein diren identifikatzen du, eta kultura unibertsalari egin dizkioten ekarpenei buruz hausnartzen du.</p> <p>- (7.2) Antzinaroko Greziak Europari egindako ekarpenak identifikatzen eta azaltzen ditu, eta ondare artistikoa eta kulturala Europako herritarren ondare komun gisa aintzat hartzen eta balioesten du.</p> <p>- (7.3) Antzinaroko Greziako Ondare artistiko, eta kulturala babestu eta kontserbatzeko beharra argudiatzen du eta Europako eta mundu osoko talde-identitatearen oinarri gisa ulertzen du.</p>	<p>ebaluatuko da, horren guztiaren artean dagoen zuzeneko erlazioagatik.</p>
<p>8. Mendebaldeko kulturaren sustrai greziarrak.</p>	<p>- (9.1) Antzinaroko Greziako zibilizazioaren ekarpen kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta pentsamenduzkoak ezagutzen eta azaltzen ditu eta egungo kulturen erroak osatzen dituztenak aipatzen ditu.</p>	<p>- Autoebaluazio askea 4. eta 5. jarduetarako.</p>

C. Azken fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p>9. Ikaskuntza ren kontrola.</p>	<p>- (8.1) Antzinaroko Greziako zibilizazioak osatu zituen elementu sozial, historiko, kultural, instituzional eta erlijiosoak deskribatzen ditu, haien sorrera eta garapena espazioan eta denboran kokatzen ditu, eta kultura unibertsalari egindako ekarpen garrantzitsuenak identifikatzen ditu.</p> <p>(8.3) Gizonen eta emakumeen benetako berdintasunaren alde argudiatzen du, eta hainbat esparrutan emakumezko pertsonaia garrantzitsuek egindako ekarpena nabarmentzen eta baloratzen du.</p>	<p>- Heteroebaluazio-errubrika.</p>
<p>10. Olibondoa. Lan bisuala institutuko</p>	<p>- (BZE 2.1) Ingurune analogiko eta digitaletan herritartasun aktiboa eta demokratikoa sustatzen du, sormenezko</p>	<p>- Koebaluazio-errubrika.</p>



korridoreetan jartzea.	prozedurak eta printzipio zibiko, etiko eta demokratiko esplizituak aplikatuz erabaki kolektiboak hartzean, ekintza koordinatuak planifikatzea eta arazoak konpontzea eskatzen duten talde-jardueretan errespetuz, elkarrizketa bidez eta modu eraikitzailean parte hartuta.	
------------------------	--	--

Metodologia

A. Printzipioak

- Jarduerak diseinatzerakoan, honako IDU printzipio hauek hartu dira kontuan: 1.1, 1.2, 1.3, 2.1, 2.4, 2.5, 3.3, 3.4, 5.1, 5.3, 6.1, 6.2, 6.4, 7.1, 7.2, 8.3, 8.4, 9.2, 9.3.
- Eredu pedagogikoak: hezitzaile-konstruktibista eta kognoszitibista/desarrollista.
<https://psicologiaymente.com/desarrollo/modelos-pedagogicos>

B. Antolakuntza

Talde handian, lauko, hiruko, eta biko taldeetan, eta bakarka.

C. Baliabideak

Ordenagailua, irakasleek prestatutako material digital eta analogikoa, erreferentzia-liburua eta Internet.

Ebaluazio-prozesua

- Koebaluazioa.
- Heteroebaluazioa.
- Autoebaluazioa.



Jardueren sekuentzia garatua (ikasleentzat)

Oharra: olibondoaren eta antzinako Greziaren arteko lotura frogatuko duen erakusketa, institutuko korridoreetan zehar jarriko dena, jarduerak garatu ahala sortuko da. Horregatik, ikasleek, irakasleak gidatuta, materiala gordetzen joan beharko dute, eta izendatutako taldeko kideekin koordinatuko beharko dute. Horri esker, lana antolatzeke metodoak ikas daitezke (**DUA 3.8: *ahaleginari eta iraunkortasunari eusteko aukerak ematea***).

1. Jarduera. Mapa (Saio 1).

Azalpena

A) [Google Earth](#) bidez, *Heladearen* ikuspegi orokor bat ikusiko dugu, zer izan zen denon artean azalduz eta deskubrituz. Espaziotik hurbilduko gara, Mediterranea bere testuinguruan kokatu ahal izateko eta Mesopotamia, Egipto, Penintsula italikoa eta Iberiar Penintsularekiko hurbiltasuna egiaztatzeke. Antzinaroko funtsezko guneak dira horiek.

B) *Heladearen* mapa marraztuko dugu, eskuz eta [eredu fidagarri](#) baten arabera (Antzinako Greziako funtsezko lekuak bakarrik nabarmenduz).

C) Geroago, koebaluazioa egingo dugu, [errubrika](#) erabiliz.

2. Jarduera. Denbora-lerro bat egitea (Saio 1).

Azalpena

- Denbora-lerro digital bat egingo dugu, [Timeline](#) erabiliz. Ikasturtean zehar, denbora-lerroa osatzen joango gara, Antzinaroko Historiaren panorama kronologiko globala ikusteko.

3. Jarduera. Testu bat irakurtzea eta harekin lotutako galderei erantzutea. Politeismora hurbiltzea (2 saio).

Azalpena

A) Ulermenezko irakurketa egingo dugu (1. eranskina ikusi), Atenearen jaiotzaren mitoari buruz eta bera Atenas hiriko zaindari bihurtzeari buruz.

B) Binaka, galderei erantzungo diegu.

C) Erantzunak denon artean komentatuko ditugu.



D) Politeismoaz eta horrek Antzinaroan izan zuen garrantziaz hitz egingo dugu, beharrezko informazioa bilatuz eta Mesopotamiako eta Egiptoko zibilizazioekin erlazionatuz.

4. Jarduera. Gizarte-egiturak (saio 1).

Azalpena

A) Ozenki, denon artean, antzinako Greziako gizarteari buruzko testua irakurriko dugu (2. eranskina ikusi), eta sortzen diren zalantzak argituko ditugu. Ulermenezko irakurmen-gaitasun handiena duten ikasleei ahotsa emango diegu, haiek izan daitezten ulertzen duten guztia besteoi argituko digutenak. Espartako eta Atenasko gizartearen arteko desberdintasunak azalduko ditugu. Galderei erantzungo diegu.

B) Lau kideko taldeetan, informazioa bilatuko dugu hiri horietako eguneroko bizitzari buruz.

C) *Soziodrama* bat egingo dugu: taldekide bakoitza gizarte-klaseren bateko kide izango da, eta egunsentitik oheratu arte edozein egun nolakoa den azalduko du. Ezberdintasun sozial horiei buruzko eztabaida bultzatuko dugu.

D) Heteroebaluazioa, errubrikaren arabera.

5. Jarduera. Antolaketa politikoa (saio 1).

Azalpena

A) Gure erreferentzia-liburuko azalpenetan eta Interneteko bilaketa gidatuan oinarrituta, hiruko taldeetan, antzinako Greziako antolaketa politikoaren hiru modu funtsezkoetako bat (monarkia, aristokrazia eta demokrazia) argitu beharko dugu, eta hiri-estatu batekin lotu.

B) Talde handian informazioa azalduko dugu, eta gainerako talde txikiek koebaluazioko errubrika bat beteko dute.

C) Ondoren, denon artean, monarkiaren, aristokraziaren eta demokraziaren arteko alderaketa egingo dugu, horiei buruzko iritzia emanez eta egungo adibideren bat bilatuz.

6. Jarduera. Sistema ekonomikoak (2 saio).

Azalpena

A) *Uluburungo Pezioari* buruzko testua ozen irakurriko dugu (3. eranskina ikusi), eta saiatuko gara guztion artean galderei erantzuten.

B) Lau laguneko taldeetan, honako zeregin hauek egingo ditugu: batzuek urdinez markatutako hitzak hartuko dituzte, eta leku horiek guztiak Mediterraneoeko mapa batean



kokatuko dituzte; beste batzuek, berriz, letra lodiz markatutako kontzeptuen herena hartuko dute –zerrenda hainbat talderen artean osatu arte–, kontzeptu horien esanahia bilatzeko eta, ahal bada, horiek erakusten dituen argazki bat erantsita.

C) Mapak eta kontzeptuak batera aztertuko ditugu, eta, guztion artean, talde handian, itsasontziak garraiatzen zituen elementuak markatutako lekuekin lotuko ditugu.

D) Bilatuko dugu zein lekutan ekoizten ziren olibak eta olioak eta Antzinaroan oliba-olioa zertarako erabiltzen zen. Horren eta Mediterraneoeko greziar kolonien arteko harremana ere bilatu beharko dugu.

E) Gure erreferentzia-liburuan Antzinako Greziako ekonomiari buruzko azalpena irakurriko dugu, eta testuak *Uluburungo Pezioari* buruz kontatzen duenaren eta ikasi dugunaren arteko jarraitutasuna bilatuko dugu.

F) Autoebaluazio librea.

7. Jarduera. Adierazpen artistiko eta kulturalak (2 saio).

Azalpena

A) *Rosetta Harriaren* argazkiak ikusi eta komentatuko ditugu denon artean (4. eranskina ikusi).

B) Informazioa modu gidatuan bilatuko dugu, eta, ondoren, *Rosetta Harriak* arkeologia-iturri gisa duen garrantziaz hitz egingo dugu. Irakasleak lagunduta, nabarmenduko dugu gertaera historikoak ezagutzeko edota egiaztatzeke halako iturri historiko moten erabilera eta garrantzia. Gainera, *Rosetta Harria* eta idazketaren asmakuntza erlazionatuko ditugu.

C) Interneten, irakasleak lagunduta iragazki zuzena eginez, *Panateneen Prozesioa* artelanari buruzko informazio fidagarria bilatuko dugu: zer zen, zergatik egin zen, zer ezaugarri artistiko zituen, eta zer-nolako harremana zeukan lanak zibilizazio horretan –bere goieneko garaian (K.a. V. eta IV. mendeetan)– nagusi zen pentsaerarekin, baita emakumeek Atenasen zuten rolaekin ere.

D) Bikoteka –eta irakasleak gidatuta hala behar denean–, Fidiak nor izan zen bilatuko dugu. Horrez gain, honako hau bilatu beharko dugu: prozesio hori irudikatzen duen obraren argazkiak, artelan hori non dagoen gordeta eta zergatik gordetzen den leku horretan. Gainera, olibondoari buruzko aipamenen bat aurkitu beharko dugu bertan. Ikasitakoa talde handian azalduko dugu.

E) Koebaluazioa, errubrikaren arabera.

8. Jarduera. Mendebaldeko kulturaren erro greziarrak (saio 1).

Azalpena

A) Gure erreferentzia-liburuko azalpenetan eta Interneteko bilaketa gidatuan oinarrituta, antzinako Greziako legatuetako bat aukeratu beharko dugu, binaka. Hautatutakoari buruzko informazio gehiago bilatuko dugu, ilustrazioekin.

B) Ikasitakoa taldeari helaraziko diogu.

C) Heteroebaluazioa, errubrikaren arabera.

9. Jarduera. Ikaskuntzaren kontrola (saio 1).

Azalpena

Atenearen Olibondoaren bidez ikasitakoari buruzko ikaskuntza-kontrol orokorra egitea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Atenearen olibondoa

ERANSKINAK

1. ATENEA

Testua eta galderak: norberak sortutakoak.

Atenea 12 jainko olinpikoetako bat zen. Jakinduriaren, zientziaren, justiziaren, zibilizazioaren eta trebetasunaren jainkosa. Gainera, leku garrantzitsua zuen **panteoi** klasikoan, **Heladeko** garrantzitsuena zen Atenas hiriko zaindari gisa jokatzeko baitzuen. Atenasen sinbolorik ezagunenetako bat olibondoa zen.

Egun batean, **Zeusek** haurdun utzi zuen **ozeanida** gazte bat, **Metis** izenekoa, **Ozeano** eta **Tetisen** alabetako bat zena. **Uranok** (zeruko jainkoa) eta **Geak** (lurreko jainkosa) Zeus bilobari profetizatu zioten bera baino seme-alaba ahaltsuagoak izango zituela. Orduan, Zeusek Metis akabatzea erabaki eta hala egin zuen: irentsi egin zuen. Horrela, ziurtatzen zuen ez zuela boteretik kenduko.

Hala ere, izakiak Zeusen gorputzaren barruan garatzen jarraitu zuen. Egun batean, Zeusek buruko min ikaragarria sentitu zuen. **Hefestori** eskatu zion aizkora batez burezurra ireki ziezaiola, hainbeste min eragiten ziona handik atera zedin. Sutegiko jainkoak Zeusen agindua bete eta burua ireki zion aizkoraz. Zauritik, **Atenea** jainkosa sortu zen, heldua jada, gerra-oihu basati bat eginez, **hoplitazko** ekipamenduaz jantzita eta kaskoaz eta lantzaz armaturik. Une hartatik aurrera, Atenea –adimenaren jainkosa boteretsua, begi berde distiratsuetakoa–, Zeusen alaba kuttuna izan zen. **Glaukopis** ere deitzen zitzaion, hontz-begietako jainkosa (begi eta meditazio handiko gaueko hegazti hori bere sinboloa izanda). Atenea **heroien** babeslea ere bazen (**Akiles, Odiseo, Herakles**, etab.), batez ere, **Ares** gerraren jainkoaren babeslea. Ateneak, sarraskiaren eta suntsiketaren bultzada irrazionalaren aurkako borroka horretan, adimena eta taktika sinbolizatzen zituen.

Poseidonek, itsasoen jainko eta Zeusen anaiak, lurreko erresumak gutziziatzen zituen. Horregatik, **Atikaren** jabetza eskatu zuen. Hiruhortza Atenasko **Akropolian** sartu eta putzu bat sortu zuen. Atera zen ura gazia zenez, Poseidonek ez zuen arrakastarik izan. Geroago, Atenea hirira iritsi zen eta modu baketsuan bere mende hartu zuen. Olibondo bat irtenarazi zuen, eta horren hainbat erabileretako fruituak oparitu zitkien atenastarrei. Poseidonek, haserre, erronka bota zion jainkosari. Zeus tartean sartu zen, eta jainkozko auzitegi bat eratzeko agindu zuen, erabaki zezan hiria jainko bietatik zeini eskaini. **Olinpoko** jainkoek osatutako auzitegiak Atenearen alde egitea erabaki zuen. Zehaztu zuten hark zeukala lur hura edukitzeko eskubidea, hiriari oparirik onena eman ziolako: lehen olibondoa. Ordutik, hiriak Atenas izena hartu zuen, eta Ateneak landatutako olibondoa mendeetan zehar gurtu zuten Akropolian: garaipena sinbolizatzen zuen.



Greziako olibondoak bakea eta oparotasuna ere sinbolizatzen zituen, baita berpizkundera eta itzaropena ere. Hala frogatzen dute **Xerxes** errege persiarrak V. mendean Atenas erre ondoko gertakariak. Xerxesek Akropoli osoa erre zuen. Atenearen ehun urtetik gorako olibondoa han zegoen, eta hura ere kiskalita geratu zen. Hala ere, atenastarrak suntsitutako hirira sartu zirenean, olibondoa ukondo bat hazita zegoen, atenastarren susperraldi eta berritze bizkorraren sinbolo gisa.

GALDERAK

1. Nor eta zer ziren letra lodiz markatuta dauden pertsonaiak, lekuak eta gauzak?
2. Sinesten al duzu istorio hau? Zergatik?
3. Zure ustez, zergatik azaltzen zituzten gauzak horrela antzinako Grezian? Nola azaltzen dira orain?
4. Zer da politeismoa?
5. Zein dira olibondoaren fruituaren erabilerak? Zergatik zen hain garrantzitsua? Orain ere hala da?

2. ANTZINAKO GREZIAKO GIZARTEA

Testua eta galderak: norberak sortutakoak.

Antzinako Greziako historian, hiri-estatuak ziren antolakuntza sozio-politikoaren oinarria. Geografikoki elkarrengandik oso hurbil zeuden bi hiri nabarmendu ziren, aurkariak zirenak eta, gainera, antolatze eta lurraldea kudeatzeko desberdintasunak zituztenak: Atenas eta Esparta.

Greziako polis guztiek honela funtzionatzen zuten:

- **Egitura sozial duala** zegoen: **eskubideak zituzten** pertsonak, **eta eskubideak ez zituzten** pertsonak.
- **Izpiritu zibikoa** zuten: denek errespetatzen zuten legea, eta, gainera, herritarrek auzi komunitarioetan parte hartzen zuten.
- **Independenteak ziren**, ez zeudelako beste *polis* baten mende.



- Independentzia ekonomikoa zuten –**Autarkia**–: *polis* bakoitzak bere populazioa mantentzeko adina baliabide zituen.
- **Lurralde-hedadura txikia** zuten, eta horrek biztanleen arteko komunikazioa errazten zuen.



Eskema: sorkuntza propioa.

Atenasek eta Espartak bilakaera eta garapen sozialaren bi eredu desberdin dira hiri-estatuatarako:

Esparta desberdintasun sozial handia zegoen:

- **Hiritar espartarrak** goiko klasea edo klase nagusia ziren, gainerakoak gailentzen zituena.
- Erdialdean **Periekoak** zeuden (merkatariak, nekazariak, etab.).
- Maila baxuenean **Ilotak** zeuden, hau da, esklaboak.

Esparta estatu militarra izan zen, eta hezkuntza armada indartzera bideratuta zegoen. Horregatik, 7 urte zituztenetik, haurrak Estatuarenak ziren eta heziketa fisikoa, morala eta intelektuala ematen zitzaien. 17 urterekin armadan sartzeko prest zeuden; lan hori 60 urte izan arte bete behar zuten.



Espartako emakumeek eskubide eta autonomia handiagoa zuten Grezia klasikoko (K.a. IV. eta V. mendeak) beste edozein hiri-estatutakoek baino. Ondasunak oinordetu zitzaizkien, lurra eduki, negozioak egin, eta, orokorrean, antzinako Greziako beste emakumeak baino hobeto ikasita zeuden. Atenasen ez bezala, non emakumeak bigarren mailako herritartzat hartzen ziren, Espartakoek landetxeaz edo finkaz arduratzeko eta finantzak eta negozioak administratzeko ardura zuten, gizonak sarritan etxetik kanpo egoten baitziren gerran.

Neskek mutilen entrenamendu fisiko bera jasotzen zuten –salbu eta armen erabileran eta gerraren artean–, eta maila berean irakatsita ziren, baina etxean. Mutilak, berriz, eskola publiko batera joaten ziren.

Ilotak etxeko lanez arduratzen zirenez –arropa ehuntzea barne–, emakume espartarrak beren zereginik garrantzitsuenean kontzentratu zitezkeen: amatasunean. Emakume espartarrak ezagunak ziren beren seme-alabez harro egoteagatik. Umeengandik espero zen hiria ohoratuko zutela portaera bertutetsu baten bidez.

Atenas eragin handiko hiri-estatua izan zen. Bere antolaketari demokrazia deitzen zitzaion: herritarrek bakarrik osatzen zuten **demos**-ak, edo herriak, gauzatutako gobernuak.

Espartan ez bezala, Atenasen gizarte-aniztasun handiagoa zegoen: lau mailako hiritarrak zeuden, eta boterea eta aberastasuna banatuago zeuden hiritarren artean. **Herritarren banaketa**rako irizpidea ondasunen edukitza zen (aleak, **olioa** eta ardoa). Kantitate-neurriei **medimnoi** deitzen zitzaion, aleetarako gure 52 litroen baliokide zirenak eta oliorako eta ardorako gure 39 litroena (neurri horri, likidoei dagokienean, *Greziar anfora* ere esaten diogu).

Pentakosimedimnoi: urtean, bostehun *medimnoi*-ko errenta zuten.

Hippei edo **zaldunak**: hirurehun *medimnoi*-ko errenta zuten urtean. Zaldunak deitzen zitzaion, errenta hori zuenak zaldi bat ordain zezakeelako.

Zeugitak edo *idi-uztarria duena* (2 idi).

Thete-ak: Atenasko gizarteko klaserik baxuena. Urtean berrehun neurri baino gutxiagorekin bizi ziren.

Atenasko herritar guztiak ordezkaturak zeuden hirian, irabazten zutena irabazten zutela.

Ez ziren herritarrak:

Atzerritarrak (negozioengatik Atenasen bizi ziren merkatari atzerritarrak)

Esklaboak (gerrako presoak)

Atenasko **gizonen heziketa**, merkataritzaren eta arteak, gizon libre eta aberatsak intelektualki lantzerantz bideratuta zegoen. Hezkuntza 4 urterekin hasten zen, 18 urtera arte luzatzen zen, eta ariketa mentalak eta fisikoak egiten ziren **gizon perfektua** sortzen saiatzeko.

Atenasko emakumeak bigarren mailakoak ziren, salbu zenbait jaialdi eta erritual erlijiosoetan parte hartzeko. Amek neska atenastarrei ehuntzen eta haurrak eta etxea zaintzen irakasten zieten.

GALDERAK

1. Non zituzten pertsonak eskubide gehiago, Espartan edo Atenasen?
2. Zure ustez, zein ziren eskubide horiek? Ba al zegoen beharrik? Ikertu.
3. Zer-nolako garrantzia zuen emakumeak bi *polis*-etan? Zergatik kontatzen ditu testuak emakume atenastarrei buruz gauza gehiago emakume espartarrei buruz baino?

3. ULUBURUNGO PEZIOA

Galderak: norberak sortutakoak.

Uluburungo kargamentu zoragarria, Brontze Aroko itsasontzi bat, jatorri ezezagunekoa.

[Guillermo Carvajal. Ekainak 4, 2019](#)



Harrizko aingurak ateratzen / argazkia [Uluburun Project](#)

1982an, urpekari amateur batek **Turkia**ko **Kaç** hiriko kostaldean esponjen bila zebilenean, zerbait ikusgarria aurkitu zuen: Brontze Aroaren amaieran –K.a. XIV. mendean–, zama guztiarekin hondoratutako itsasontzi baten **pezioa**.



Aurkikuntzaren lekua / argazkia [Presse03, Wikimedia Commons](#)

Pezioari eta itsasontziari **Uluburun** deitu zitzaizen, Kaçeko hego-ekialdeko lur-mihiagatik, (pezioa han aurkitu zuten), hau da, Antalya probintziako **izen bereko lurmuturra**gatik. Itsasontzia kostaldetik 60 metrora zegoen, 61 metroko sakoneran. Handik bi urtera arte, 1984an, ez ziren berreskuratze-lanak hasi.

10 urte behar izan ziren (1994ra arte) itsasontzia eta kargamentua berreskuratzeko, eta gaur egun Bodrumeko Itsaspeko Arkeologia Museoan ikus daitezke. Hala ere, piezen azterketa oraindik ez da amaitu. Urpekari turkiarrek eta estatubatuarrek 22.000 urperatze baino gehiago egin zituzten, eta 6.600 ordu baino gehiago eman zituzten lanean.

Itsasontziaren zama gehienbat **merkataritzarako lehengaiez** osatuta zegoen: ordura arte testu zaharregatik edo Egiptoko hilobietan aurkitutako pinturengatik bakarrik ezagutzen ziren artikuluez.



Berreraikuntza Bodrum Museoa / argazkia [Georges Jansoone, Wikimedia Commons](#)

Kobre gordinezko plantxak aurkitu ziren lehenengoz, 354 lingote laukizuzen, guztira 10 tonako pisua zutenak. Horretaz gain, beste 121 **kobrezko biribilki** eta **lingote obalatu**, eta agian jatorria **Tartessos**-eko meategietan duten 40 eztaizuzko lingote.



Bitxien zati bat Bodrum Museoan / argazkia [Georges Jansoone, Wikimedia Commons](#)

149 **pitxer kananeo**, gehienak **olibak** eta **pistazia-erretxina** (agoarras moduko bat) izeneko substantzia bat dutenak. Azken hori **Egiptoko Tell el-Amarnako** pitxer kananeoetan ere aurkitu da.

175 **beirazko** lingote, turkesa, kobalto urdina eta labanda kolorekoak, ezagutzen diren beirazko lehen lingoteak direnak. **Ebano** enborrak, **hipopotamo- eta elefante-letaginak**, **hipopotamo-hortzak**, **dortoka-oskolak**, **ostruka-arrautzak**, **Zipreko buztingintza**, **olio-lanparak**, **brontzezko eta kobrezko ontziak**, ahate-itxurako **marfilezko** bi **kosmetiko-kaxa**, **kareizko** bi dozena **eraztun**, **abatak eta belarritakoak**, **agatak**, **kuartzoak**, **urrezko eta zilarrezko belarritakoak eta eraztunak**, **anbar**, **brontzezko arotz-erremintak**, 6 lantza-punta europar – **Alpeetan** aurkitutakoen antzekoak–, **ezpata italiko** bat, **harrizko aizkora zeremonial** bat eta **Nefertitiren eskarabeo** bat (K.a. 1360-1335 ingurukoa), **ontzia ezin izan zela hondoratu Nefertitiren erregealdia baino lehen adierazten duena.**



Kobreko lingote-itxurako dirua, **Talentuak** izenekoak / foto [Martin Bahmann, Wikimedia Commons](#)

Itsasontziaren egurraren analisiak K.a. 1400 inguruko data eman zuen itsasontziaren eraikuntzaren data gisa. Hala ere, garraiatzen zuen egurra K.a. 1316 eta 1305 urte bitartean moztutako zuhaitzei zegokien. Horrek adierazten du hori izan daitekeela bere azken bidaiaren –eta hondoratzearen– data. Ideia hori ontzian aurkitutako zeramika mizenikoak indartzen du, zeramika hori bat datorrelako Mursili II.a errege hititarrak K.a. 1312an **Miletoren** suntsipenaren geruza arkeologikoan aurkitutako zeramikarekin.

Baina nondik zetozen ontzia eta eskifaia? Oraindik ez dago batere argi. Ikertzaile gehienek uste dute portu **siriar-palestinar** batean edo **Zipren**, uharte horretako meategietatik 6 tona kobre biltzeko geldialdia egin ondoren, hondoratu zela. Lehenago, Egiptora eta beste leku batzuetara ere joan behar izan zuen. Kontua da hondoratu zenean jatorri desberdineko 18.000 objektu baino gehiago zeramatzala ontziak: **mizenikoak**, zipretarrak, kananeak, kasitak, egiptoarrak eta **asiriarrak**. Azken helmuga Grezia kontinentaleko jauregi mizeniko bat zela uste da.

15 eta 16 metro arteko luzera zuen, eta **Libanoko zedrozko** eta **haritzezko** oholez eta gilez eraiki zen. Horrek guztiak jatorriaren arrasto bat ematen du, zedro-mota hori **Libano**ko mendietako autoktonoa baita, eta Turkiako hegoaldekoa eta Zipreko erdialdekoa ere. **Egean** oso ohikoak ez ziren **harrizko** 24 **aingura**



zeramatzan ontziak, eta ezin da jakin produktu komertzial gisa zeramatzan edo itsasontziaren zama orekatzeko ziren.

Zenbait ikertzailearen arabera, itsasontzian funtzionario mizenikoak ere bazihoazen; izan ere, **marfilezko bandak dituen ezpelezko oholtxo tolesgarri bat** aurkitu dute, agian **idazteko argizarizko gainazalak izango zituena**. Hortik ondoriozta daiteke kargamentua erregeen arteko opari-multzo moduko bat izango zela.

Objektuen jatorria argi dago: geografikoki Europako iparraldetik Afrikaraino eta **Siziliatik** eta **Sardinia**tik mendebalderantz **Mesopotamiaraino** zabaltzen da. **Egeo itsasoa Brontze Aro Berantiarrean zehar ibilbide luzeko nazioarteko merkataritza baten erdigunea zen**. Merkataritza hori agian Ekialde hurbileko erregeen arteko opari-trukean oinarritua zegoen.

Galderak

1. Testuak zein garairi egiten die erreferentzia? Zein garai ikasi ditugu?
2. Badakizu dirua zer den? Ezagutzen al duzu diruaren eta monetaren arteko aldea? Ba al dago diruaren adibiderik testuan?
3. Espero zenuen aspaldiko garai batean hainbeste produktu mugitzea?
4. Gorriz idatzitako lerroak irakurri ondoren, saiatu azaltzen kultura materiala nola aztertzen den, jakiteko hain urruti geratzen zaizkigun garai horietan mundua nolakoa zen. Erabiltzen al dira metodo zientifikoa, hipotesi-ikerketa eta proba-tesia?


Iturriak:

[Institute of Nautical Archaeology](#) / *The Bronze Age Shipwreck at Ulu Burun: 1986 Campaign*, George F. Bass, Cemal Pulak, Dominique Collon and James Weinstein, *American Journal of Archaeology* Vol. 93, No. 1 (Jan., 1989), pp. 1-29, [DOI: 10.2307/505396](https://doi.org/10.2307/505396)


Nicholson, Paul T., Caroline M. Jackson, and Katharine M. Trott. *The Ulu Burun Glass Ingots, Cylindrical Vessels and Egyptian Glass*. *The Journal of Egyptian Archaeology* 83 (1997): 143-53. [doi:10.2307/3822462](https://doi.org/10.2307/3822462). / [Wikipedia](#).




4. ROSETTA HARRIA



Rosetta Harria. Egiptoera. Transkripzio hieroglifikoa.



Rosetta Harria. Egiptoera.



Rosetta Harria. Grekoa. Transkripzio demotikoa.